

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 2013-2016 urtetarako Inbertsio Publikoen Plana egiten hastea onetsi du

Planak jasoko dituen inbertsioak ondoko atalekin izango dute zerikusia: I+G eta teknologia; azpiegitura adimendunak, garraioak, telekomunikazioak eta energia-eraginkortasuna; hezkuntza eta osasunaren bikaintasuna; Administrazioaren modernizazioa; eta gizarte-garapena

Miércoles, 14 de diciembre de 2011

Nafarroako Gobernuak 2013-2016 urtetarako Inbertsio Publikoen Plana egiten hastea onetsi du gaur bere asteroko bileran. Planaren helburu nagusietako bat Nafarroako Gobernuaren Departamentu eta enpresa publiko guztien koordinazioa lortzea da, honela, inbertsio publikoen politikaren koherentzia bermatzeko.



Nafarroako Jauregia.

Gobernuko Departamentu ezberdinek antzeman eta proposatutako beharrak hartuko dira kontuan bere elaborazioan. Horien artean, lehentasuna izango dute Nafarroak bere helburu sozial eta produktibo estrategikoak lortzeko aukera hobe ematen duten inbertsioek, etorkizunari baldintza onenetan aurre egiteko asmoz.

Zentzu honetan, Moderna Planarekin bat etortzen diren inbertsioak jasoko ditu plan berriak. Zehazki, ondoko atalekin izango dute zerikusia: I+G eta teknologia; azpiegitura adimendunak, garraioak, telekomunikazioak eta energia-eraginkortasuna; hezkuntza bikaintasuna; osasunaren bikaintasuna; Administrazioaren modernizazioa eta berrikuntza; eta gizarte-garapena.

Nafarroako Aurrekontu Orokorraren bidez eta aurrekontuetatik kanpoko diru-sarreraren bidez finantzatuko da 2013-2016 urtetarako Inbertsio Publikoen Plana. Departamentu ezberdinetako inbertsio publikoen plangintza une bakoitzako baliabide ekonomikoaren arabera egingo da. Aurrekontuen bidezko finantziaketa duten inbertsioak Nafarroako Gobernuaren hainbat urtetarako Ekonomia Programazioan jasoko dira.

Metodologia eta egutegia

Gaurtik hasita eta datorren urtarrilaren 20a bitarte, Gobernuako Departamentuek datorren lau urtetan burutzeko asmoa duten proiektuen zerrenda aurkeztu beharko dute. Eta hau, zuzenean edo euren menpe dauden enpresa publikoen bidez egin beharko dute. Horretarako, fitxa batzuk banatuko zaizkie informazio modu homogeneoan lortzeko.

Behin informazio hori aztertu ondoren, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposamen bat aurkeztuko dio Gobernuari bere onespina lortzeko. Planarekin batera aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egiteko arauak onetsiko dira. Eta, era berean, proiektu bakoitzaren arduradunak izendatuko ditu Gobernuak.

Gobernuaren onespina jaso eta gero, plana Nafarroako Parlamentura helaraziko da.

Hazkunde ekonomikoa eta enpleguaren sorrera sustatzeko UPNek eta PSNek izenpetutako Gobernu Akordioan jasota dago hainbat urtetarako Inbertsio Publikoen Plana.